

## IZADI 21 (Inguru 21, S.L.) enpresaren ingurumen politika

Gure aholkularitza enpresak Oiartzunen kokatuta duen bulegoan askotariko zerbitzuak eskaintzen dizkie gure bezeroei:

- Ingurumen aholkularitza orokorra
- Iraunkortasun prozesuen koordinazioa eta jarraipena
- Ingurumen hezkuntzako ekintzen programazioa eta koordinazioa
- Hirigintza iraunkorrari buruzko aholkularitza
- Biodibertsitatearen inguruko ikerketa eta proiektuak
- Ingurumen Kudeaketa Sistemen ezarpena, jarraipena eta mantenua
- Enpresa-kudeaketan erosketa eta kontratazio berdeari buruzko irizpideen txertaketa
- Herritarren partaidetza prozesu eta mekanismoen sustapena eta dinamizazio lanak
- Ingurumen arloko komunikazio eta sentsibilizazio kanpainen antolaketa
- Eskolako Agenda 21en dinamizazio lanak
- Tokiko Agenda 21en prozesuen inguruko aholkularitza
- Ingurumen arloko prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak gauzatzea, ikastaroen (*on-line* erakoak edo presentzialak) nahiz hitzaldietan oinarrituta

Azken 3 urteotan gure enpresak izandako bilakaera positiboari esker, gure bezeroen gogobetetze maila altua lortu dugu. Etorkizunean ere enpresaren zerbitzuen kalitatea hobetzeko helburuarekin eta enpresaren jarduerak burutzen ditugun eremuan ingurumenaren babesaren berrantolaketa aldera, garapen ekonomikoa eta ingurumenaren babesaren arteko oreka lortu beharko genukeela jakin badakigu. Hori dela eta, gure gain hartu dugu kutsadura ekidin, natur baliabideak aurreztu eta baliabide horiek arduraz kudeatzeko ardura. Aldi berean, gure enpresaren funtzionamenduan ingurumen aldagaia barneratzeko konpromisoarekin bat egiten dugu, enpresaren ingurumen jokabidea egunetik egunero hobetzen joateko.

Gainerako gizarte jarduerekin gertatzen den eran, gure enpresak ere ingurumen inpaktuak sortzen ditu. Hori dela eta, enpresa jardueraren ingurumen arloko eraginak antzeman eta ebaluatzeko konpromisoarekin bat egin dugu eta gure langileei zuzendutako ingurumen arloko prestakuntza ikastaroak antolatuko ditugu, langileen eguneroko egitekoetan ere ingurumen aldagai barneratuz, enpresaren konpromisoa eguneroko jardunean isla dadin.

Ingurumen legedia betetzea baino haratago doan ingurumen arloko etengabeko hobekuntza lortzea izango da gure jomuga eta hori lortu asmoz, urtero ingurumen arloko helburu orokorrak, jomuga zehatzak eta jarduera programak definitu eta berrikusiko ditugu, lehen aipatu diren ingurumen inpaktuak murrizteko.

Gure enpresaren ingurumen politikarekiko adostasuna bermatze aldera, Izadi 21 (Inguru 21, S.L.) enpresaren Zuzendaritzak ISO 14.001 arauaren arabera Ingurumen Kudeaketarako Sistema ezarri du.

